



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak **ASTEKO LABURPENA**

2017ko abenduaren 18tik 22rako astea



INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...



ASTE HONETAN MERKATUETAN



GURE IKUSPEGIA

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ALEMANIA: IFO



Datuaren analisisia

mpresen konfiantzak ustekabeen atzera egin zuen abenduan, aurreko hilean errekor historikoa autsi ondoren. Aukeren arloan eman zen murrizketa, beharbada, hurrengo gobernuaren raketaren inguruko ziurgabetasun ezaren eraginez, edo lan-indar kualifikatua kontratatzeko ailtasunen ondorioz. Nolanahi ere, enpresari alemanen konfiantza-maila bikaina da, barne zein anpo-eskariaren hazkunde sendoari esker, merkataritza globalaren bultzadak lagunduta. estuinguru horretan, Bundesbankek Alemaniako ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak igo tuen iragan astean.


Adierazlearen azalpena

mpresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako arduera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du ilero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen a, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura so estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin ehenago argitaratzen denez, aurreikus daiteke).

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB. ONDASUN IRAUNKORREN ESKARIAK



Datuaren analisisia

Indasun iraunkorren eskariek hobetzeko joerari eutsi zioten, ez horrenbeste azaroko atuari, atzera egin baitzuen, baizik eta aurreko datua oso gora berrikusi zelako. Ekipondasunen eskariek argi erakusten dute enpresen inbertsioen hazkundeak jarraipena izango duela 2018an, eta hazkunde ekonomikoari egindako ekarpena gero eta handiagoa izango da. Ekipondueraren gaitasuna urria dela erakusten duten zantzuak daude dagoeneko, eta beraz, teknologian, ekipamenduetan eta azpiegituretan egingo den inbertsioak etorkizun hurbilean iraripena izango duela ondorioztatu daiteke.


Adierazlearen azalpena

Indasun Iraunkorren Eskariaren Indizeak fabrikatzaile nazionalen berehalako etorkizuneko inbertsioentzako egiten zaizkien eskari berriak aztertzen ditu. Hiru urtetik gorako bizitza daukaten produktu industrialak besterik ez dira aintzat hartzen. Ekipondueraren adierazle aurreratu bat da. Indize hau hazten denean, eskaria indartzen ari dela esan nahi du. Produktu iraunkorretarako inbertsio handiak egin behar direnez, herrialdearen egoera ekonomikoak eragina izan dezake.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ETXEBIZITZEN SALMENTA



Datuaren analisisia

Bigarren eskuko etxebizitzaren salmentak gora egin zuten berriro, eta azken 11 urteotako markak autsi zituen. Prezioen medianak urte arteko % 5,8 egin zuten gora, 248.000 dolarretaraino. Salmenten erritmo bizi hori salgai dauden etxebizitzaren inbentarioa minimoetaraino murrizteko argungarri izaten ari da, eta horrek are gehiago bultzatzen ditu goraka prezioak. Salmenten erritmo honekin, salmentetarako 3,4 hilerako inbentarioa legoke, mailarik baxuena 1999tik. Amerikako higiezinaren merkatuaren sendotasunaren erakusgarri da saldutako etxebizitzaren % 40 ilabete eskas egon dela salmentan.

Adierazlearen azalpena

Bigarren Eskuko Etxebizitzaren Salmenta-indizea hileroko argitaratzen da, eta hilean itxi diren salmenten tasa neurtzen du, etxebizitzena, jabekidetzena eta bigarren eskuko kooperatibena. Higiezinaren sektorearen joerak zehazteko balio duen adierazlea da. Etxebizitza Berrien Salmenten dizeak, aukeratutako 15.000 etxebizitza-proiekturen artean, 10.000 eraikitzaile edo jaberik gindako elkarrizketak ditu oinarri. Salmenta-konpromisoa daukaten etxebizitza eraiki berrien kopurua neurtzen du. Higiezinaren merkatuko joerak eta altzari eta etxe-tresna elektrikoentzuzumitzaileen bultzada ekonomikoa eta erosketa-ekimena erakusten dizkigu.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikuspe na
12/26	Japonia	Langabezia	% 2,8
12/26	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0,5
12/26	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	21
12/26	Estatu Batuak	Manuf. jarduera Fed Dallas	20.0
12/27	Espainia	Urte arteko xehakako salmentak	--
12/27	Estatu Batuak	Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza	128.0
12/27	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	-% 0.5
12/27	Alemania	Urte arteko xehakako salmentak	% 2,2
12/28	Japonia	Hileko xehakako salmentak	% 0,7
12/28	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	% 3,6
12/28	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
12/28	Estatu Batuak	Chicagoko manufakturen indizea	61.8
12/29	Espainia	Urte arteko KPIa	% 1,5
12/29	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1,5

ASTE HONETAN MERKATUETAN

JRTSAK:

urtsa-indizeek, orokorrean, joera positiboa izan zuten artearen hasieratik, ikusmin handia piztu duen zerga-reforma amerikarraren onarpenak lagunduta. Europan, Brexitaren negoziazioan eman ziren irrerapenak modu positiboan jaso zituen Ingalaterrako FTSE 100 indizearen bilakaera ona nabarmendu behar da. Osagai positibo horiez gain, bilakaera makroekonomikoa oso ona izan zen Atlantikoaren bi aldeetan, non ondasun iraunkorren eskariak, enbixitzaren salmentak eta gastu pertsonala AEBetan eta IFO alemaniarra eta Euroguneko kontsumitzaileen inbentzio nabarmendu behar diren. Japonian, esportazioak oso positiboak izan ziren, batez ere Japoniarako Asiara eta bereziki Txinara bidalitakoak. Eurozko moneta osoan hazkunde handiago baten aukerak eragin zituen positiboa izan zuten oinarritzko baliabideen sektorean, eta honetan % 3,5 igo zena. Etxean, hauteskunde emaitzen emaitzak Ibox 35a kaltetu zuen, astea maila positiboan amaitu bazuen ere.

ERRENTA FINKOAK:

Europar Bankaren bultzatutako zerga-erreformaren onarpenak eragin zuen kurba amerikarraren igoera eragin zuen, kurba alemaniarra berehala kutsatu zuena. Biek ala biek izan zuten ten gorako mugimendu bat. Hartara, Alemaniako 2 eta 10 urtekoen errentagarritasunak 9 op eta 12 op egin zuten gora, hurrenez hurren. Espainiako diferentziala 11 op estutu zen, 105 op-raino, Kataluniako errentakundearen emaitza ezagutu aurretik, eta ia ez zuten aldaketarik izan ondoren. Portugalgo merkaturak otagonista izan zen, diferentziala 12 op estutu zituzten, Fitch-ek ratinga hobetu ondoren. Kreditu-merkatuak ere bilakaera positiboa izan zuen.

BISAK/LEHENGAIK:

Europar Bankaren merkaturak, euroak % 0,75eko balioa irabazi zuten dolarren aurrean, % 1,25 yenaren aurrean eta % 0,29 liberaren aurrean. Petrolio gordinaren prezioak % 1,41 egin zuten gora, petrolio gordinaren Amerikako esportazioen datuak atzera egin ondoren. Ipar Itsasoko esportazioen itxiera eta LPEEren ekoizpenaren urrutzeta lagungarri izaten ari da eskaintza eta eskaria ekartzeko. Gainerako lehengaiak gora egin zuten, batez ere urreak, % 1,58ko igoerarekin.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2017
MSCI WORLD (Local)	1.591,11	0,57	16,63
IBEX 35	10.182,00	0,31	8,87
DJ EURO STOXX 50	3.553,39	-0,20	7,99
DJ STOXX 50	3.187,27	0,09	5,87
FTSE	7.592,66	1,36	6,30
S&P 500	2.683,34	0,28	19,85
Dow Jones	24.754,06	0,42	25,26
NASDAQ	6.959,96	0,34	29,29
NIKKEI 225	22.902,76	1,55	19,82
MSCI GORAKORRAK (Lo)	60.261,71	1,52	26,46
MEXBOL	48.387,93	0,64	6,01
BOVESPA	75.186,53	3,55	24,84
SHANGHAI	3.452,99	0,95	6,26
Errusia Rts Mosku	1.135,70	-1,09	-1,44

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2017
ALEMANIA 2 URTE	-0,63	0,09	0,14
ESPAINIA 2 URTE	-0,36	-0,02	-0,09
AEB 2 URTE	1,89	0,05	0,70
ALEMANIA 10 URTE	0,42	0,12	0,21
ESPAINIA 10 URTE	1,47	0,01	0,09
AEB 10 URTE	2,48	0,13	0,04
ALEMANIA 30 URTE	1,24	0,14	0,30
ESPAINIA 30 URTE	2,74	0,04	0,12
AEB 30 URTE	2,83	0,14	-0,23

Kreditu-spreada (op)

MARKIT ITRX EUROPE 12/22	45,27	-2,72	-26,77
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	230,60	-7,24	-58,11

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2017
Dolarra / Euroa	1,19	0,75	12,38
Yena / Euroa	134,24	1,25	9,10
Libera / Euroa	0,89	0,29	3,66

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Petrolio (Brendt)	64,70	1,41	16,77
Urrea	1.275,25	1,58	10,67



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.